

Esaldi bakoitzari lotutako 15 emakume zientzialariak hauek dira:

1. *Matematikaren edertasuna jarraitzaile pazienteenei baino ez zaie erakusten.* **Maryam Mirzakhani, matematikaria**

<https://zientziakaiera.eus/2017/12/01/maryam-mirzakhani-emakumea-matematikaria-irandarra-saritua/>

2. *Ez naiz ezer, ez dut ezer egin; naizena, dakidan guztia nebari zor diot. Berak moldatu zuen tresna bat besterik ez naiz; ondo entrenatutako txakurtxo batek ere gauza bera egingo zukeen.*

Caroline Herschel, astronomoa

<https://zientziakaiera.eus/2016/05/13/caroline-herschel-1750-1848-zeru-izartsuari-begira/>

3. *Artemisia mina antzinako txinatar medikuntzaren oparia da. Baina ez da Txinako medikuntzaren jakinduriak fruituak eman dituen kasu bakarra.* **Tu Youyou, medikua**

<https://zientziakaiera.eus/2018/01/19/tu-youyou-1930-sendabelarrek-badute-lekua-medikuntzan/>

4. *Ikerketarik gabeko herrialdea garapenik gabeko herrialdea da.*

Margarita Salas, biokimikaria

<https://zientziakaiera.eus/2019/11/10/asteon-zientzia-begi-bistan-276/>

5. *Matematikaren ezagutzan sakontzeko aukerarik izan ez duenak aritmetikarekin nahasten ditu eta astuntzat hartzen du. Egia esan, irudimen handia eskatzen duen zientzia da.* **Sofia Kovalevskaya, matematikaria**

<https://mujeresconciencia.com/2015/01/15/sofia-kovalevskaya-matematica/>

6. *Etxera bueltatu eta sukaltarrian plater pila bat aurkitzea baino zerbait okerragoa dago: laborategira ez joatea!* **Chien-Shiung Wu, fisikaria**

<https://zientziakaiera.eus/2021/07/22/simetriaz-eta-bere-hausturaz-eta-iii/>

7. *Deskonexio handia dago zientifikoki frogatu denaren eta jende gehienak uste duenaren artean.* **Lynn Margulis, biologoa**

<https://mujeresconciencia.com/2015/03/05/lynn-margulis-biologa/>

8. *Defenda ezazu pentsatzeko duzun eskubidea, hobe baita oker pentsatzea ez pentsatzea baino.* **Hypatia, matematikaria**
<https://zientziakaiera.eus/2019/12/05/hipatia-zientzialari-aitzindariaren-historia-komiki-egina/>

9. *Ez izan zalantzarik, herritar pentsalari eta konprometitu talde txiki batek mundua alda dezake. Izan ere, lortu duten bakarrak dira.* **Margaret Mead, antropologoa**
<https://mujeresconciencia.com/2016/12/16/margaret-mead-antropologa/>

10. *Zuhaitzak landatzeko metodo praktiko horrekin, emakumeak konturatu dira ingurumena zaindu edo suntsitzeko benetako aukera dutela. Esperientzia horiek beren autoestimua garatzen laguntzen dute, eta ahalmen handiagoa ematen diete beren bizitzetan.* **Wangari Muta Maathai, biologoa.**
<https://zientziakaiera.eus/2018/02/16/wangari-muta-maathai-woman-tree-zuhaitz-emakumea/>

11. *Behaketak gaixoaren egoeraren berri ematen du, hausnarketak zer egin behar den erakusten du, trebezia praktikoak nola egin behar den adierazten du. Prestakuntza eta esperientzia beharrezkoak dira jakiteko nola eta zer behatu; jakiteko nola eta zer pentsatu.* **Florence Nightingale, erizaina eta estatistikaria**
<https://mujeresconciencia.com/2014/05/12/florence-nightingale-pionera-estadistica/>

12. *Ikusmena zertxobait galdu dut, entzumena, aldiz, asko. Hitzaldietan ez ditut ondo ikusten proiektzioak eta ez dut ondo entzuten. Baina orain hogeitau urte nituenean baino gehiago eta hobeto pentsatzen dut.* **Rita Levi Montalcini, medikua eta neurozientzialaria**
<https://zientziakaiera.eus/2015/09/18/rita-levi-montalcini-1909-2012-sasi-guztien-gainetik/>

13. *Ez didazu poesia filosofikorik eskainiko. Ordena aldatu! Emango didazu filosofia poetikoa, zientzia poetikoa?* **Ada Lovelace, matematikaria**
<https://zientziakaiera.eus/2021/04/02/ada-lovelace-dena-kalkulatua-zuen-matematikaria/>

14. *Edertasun sinboliko bezain erreala dago hegaztien migrazioan, itsasgora eta itsasbeheran, udaberrirako prest dauden hosto eta lore-begien tolesturetan. Infinituki indarberritzen duen zerbait dago naturan behin eta berriz errepikatzen diren leloetan, egunsentia gauaren ondoren datorrela eta udaberria neguaren ondoren.* **Rachel Carson, biologoa**

<https://zientziakaiera.eus/2020/12/28/mugimendu-ekologistaren-historia/>

15. *Zientzia ederra da, eta edertasun hori dela eta, lan egin behar dugu zientzian; eta, agian, noizbait erradioa bezalako aurkikuntza zientifiko bat gizateria osoarentzat onuragarria izan daiteke.* **Marie Curie, fisikaria**

<https://zientziakaiera.eus/2019/07/19/marie-curie-1867-1934-mitoaren-azpian-dagoen-zientzialaria/>

Eta irudian, ezkerretik eskuinera eta goitik behera, hauek dira:



Caroline Herschel, Chien-Shiung Wu, Maryam Mirzakhani, Sofia Kovalevskaya, Tu Youyou, Rachel Carson, Ada Lovelace, Margarita Salas, Marie Curie, Rita Levi Montalcini, Margaret Mead, Lynn Margulis, Florence Nightingale, Wangari Muta Maathai e Hipatia.